



ctb

bizkaiko garraio partzuergoa
consorcio de transportes de bizkaia

Barik txartelak erabiltzaileak eta merkatuko kuota irabazi zituen 2014an ere

- **BGPk Bizkaian zehar garraio publikoan mugitzeko atera zuen ukipenik gabeko euskarriak 118.311.765 bidaiari erregistratu zituen pasa den urtean.**
- **Lurraldetik garraio publikoan egindako lekualdaketen % 71,5 egiten da jada Barik txartelarekin.**
- **Momentu honetan Bizkaiko biztanleak baino gehiago dira Barik txartelak: 1.209.544 txartel daude.**

Bilbo, 2015eko martxoaren 13a.

2012ko urrian Barik txartelaren erabilera masiboa aktibatu zenetik, gero eta gehiago erabiltzen da. Pasa den urtean, Bizkaiko Garraio Partzuergoaren ukipenik gabeko euskarri batutako txartelak 118.311.765 bidaiari erregistratu zituzten, 2013an izandako 2.041.992 bidaiariak gaindituz. Txartelaren hedapena eta erabilera ohikoa bilakatu dira Bizkaiko biztanleen artean eta horren erakusgarri da momentu honetan Barik txartelak Bizkaiko biztanleak baino gehiago izatea: 1.209.544 txartel daude.

Barik txartel mota desberdinek (anonimoak, erregistratutakoak edo pertsonalizatuak) garraio-txartel desberdinak barne hartzen dituzte. Horien artean, Creditrans txartela da balidazio gehien izan dituen (94.376.548 balidazio, hots, Barik sistema osoaren % 80). Gizatrans txartela (65 urtetik gorako pertsonentzat dena) da gehien erabiltzen den bigarren txartela, 23.330.494 bidaiarirekin. Horren ostean dago hileko Gazte txartela, 2014ko uztailan Barik sistemara gehitu zen gazteentzako txartela. Azken horrek 604.723 balidazio izan zituen.

2013ko zifrei dagokionez, BGPren txartelen erabilerak gora egin zuen. Gizatrans txartelaren erabilerak izan zuen hazkunderik garrantzitsuen (4,45%). Bestalde, Creditrans txartelaren erabilerak % 0,47 egin zuen gora.

Partzuergoaren txartelen artean, Familia Ugariaren profilak izandako hazkundera azpimarratu beharra dago. Azken horren erabilerak % 5,32 egin zuen gora. Guztira % 20ko eta % 50eko deskontua aplikatu zitzaizen 3.034.829 bidaiari egin ziren, erabiltzaileen kategoria orokorraren (F20) edo bereziaren (F50) arabera.

Operadoreei dagokionez, herritarrek gehien erabiltzen dituzten garraioetan nabaritu zen Barik txartelaren hedapena. Metro Bilbaok Barik txartelaren erabiltzaileen ia erdia (% 48,75) hartu zuen, 57,6 milioi balidaziorekin. Bigarren postuan daude Bilbobus bezeroak, 24,3 milioi balidaziorekin (erabiltzaileen % 20,56). Hirugarren postuan, aldiz, Bizkaibusen erabiltzaileak daude, 22,7 milioi balidaziorekin (erabiltzaileen % 19,19). Horien atzetik geratu dira Renfe (3,49 milioi bidaiari Barik txartelarekin), Euskotren (3,27 milioi), Euskotran (2,38 milioi) edo Bizkaia Zubia (2,20 milioi).



bizkaiko garraio partzuergoa
consorcio de transportes de bizkaia

Pasa den urtean, Barik txartelaren erabiltzaileek 11.256.313 aldiz kargatu zuten txartela (93,30 milioi euro) eta 261.771 txartel berri igorri ziren. Momentu honetan 1.209.544 Barik txartel daude. Horietatik 965.793 zuriak dira (745.592 anonimoak, 55.157 erregistratuak eta 165.044 pertsonalizatuak) eta 243.751 Gizatrans gorriak dira.

Partzuergoaren ukipenik gabeko txartelarekin Bizkaiko garraio publiko guztiak erabil daitezke. Txanpon-txartel gisan funtzionatzen duen Barik txartel bat dago (Creditrans), baita pertsonalizatua den beste bat ere, hileko txartelak eta Familia Ugaria, Bilbotrans, Giza (65 urtetik gorakoentzat, ezintasun osoa edo handia dutenentzat eta % 65eko edo gehiagoko elbarritasuna dutenentzat) edo Gazte (Bizkaian erroldatuta dauden 26 urtetik beherako pertsonentzat) profilen baldintza bereziak lortzeko dena.

2 urte baino gutxiagoko epean, Barik Bizkaiko garraio publikoaren euskarri bakarra bihurtu da, azkar erabiltzeaz gain, eroso eta segurua delako.

<http://www.ctb.eus/eu/ohiko-galderak>